

Eraztunaren indarra,

III. Tesien Sariaren irabazlea

Garazi Andonegi Beristain
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Eraztunaren indar ezkutua lanak irabazi du III. Tesien Saria. Bigarren sailkatua Altzairuen mikroegitura karakterizatzeko teknika magnetiko berriak izenburudun tesia izan da.

PLASTIKOEN PROPIETATEAK AZTERTU DITU Silvia Arrese-Igor EHUko doktoreak *Eraztunaren indar ezkutua* tesian, fenilo eraztunak ($C_6H_5^-$) dituzten plastikoaren bereziki. Eraztun horiek plastikoaren oinarriko katearen inguruan biratu eta oszilatu egiten dute. Eta, gainera, inguruko molekulek mugimendu horiek sustatu edo murriztu ditzakete. Hala, mugimendu horiek plastikoaren propietate mekanikoetan eragiten dutela ikusi du ikertzaileak. Horregatik, eraztunen indar ezkutua agerian jarri du.

Ane Martinez de Gereñuren lanak, berriz, altzairuaren mikroegituraren ezaugarriak izan ditu aztergai. Altzairuaren bame-egitura aztertzeo teknika magnetiko berriak proposatzen ditu TECNUNeko ikertzaileak bere tesian. Alde batetik, teknika horiekin altzairuen deformazio plastikoak neur daitezke, eta, bestetik, ekoizpeneko hainbat prozesutan altzairuaren mikroegitura nola aldatzen den ikusteko parameetroak lortu ditu.



Silvia Arrese-Igorren lanak irabazi du III. Tesien Saria, eta Ane Martinez de Gereñu izan da bigarrena.

Bi lan horiek egin dute, hain zuzen ere, tesia dibulgateko ahaleginik handiena. Gaien konplexutasuna kontuan izanda, edonork ulertzeo eran idazteko ahalegina nabarmendu dute epaimahaikideek. Horrez gain, terminologia azaltzea eta egoki erabiltzea, idazkeraren samurtasuna, tesiaren muina ondo azalduta egotea eta euskaraz egindako dibulgazio-ahalegina baloratu dituzte, batez ere. Hala ere, termino edo kontzeptuak jakintzat emateko joera ikusi du epaimahaia aurkeztutako lanetan.

17 lan guztira

Guztira 17 lan aurkeztu dira III. Tesien Sarira. Horietatik 9 Nafarroako Unibertsitate Publikokoak izan dira, 7 EHUkoak eta bakar bat Nafarroako Unibertsitatekoa. Lan horrek irabazi du bigarren saria. Guztiak 2004an aurkeztu ziren.

Askotariko gaiak jorratu dira, besteak beste, informatika, nekazaritza, geologia, matematika, estatistika, fisika eta medikuntza. Hizkuntzei dagokienez, 4 laburpenek euskara izan dute hizkuntza nagusizat, 12k gaztelania eta batek ingelesa.

Silvia Arrese-Igorrek ordenagailu eramangarri bat eskuratu du, SISTEK Informatica y Sistemas etxearen laguntzari esker. Bigarren sari gisara, landetxe batean asteburua igarotzeko aukera izango du Ane Martinez de Gereñuk, NEKATUR landa-turismoko elkartearen eskutik.

Saritutako lan horiek eta parte hartu duten gainerakoek Interneten daude ikusgai www.basqueresearch.com web gunean. 